

## **PREDIKUAK ZUGARRAMURDI, 1875**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:  
Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.  
Bertsio informatiko honen egilea:  
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego  
Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka,  
nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **PREDIKUAK ZUGARRAMURDI, 1875**

I

Sermón sobre los bailes

Exordio

Guelditzen da necazalea lanetic, bazterra edo bere ondasuna quisuztatu duenean? Eta  
ezpada lanetic guizona ura guelditzen, ¿guelditu bear ote dut nic predicatzetic Misione  
Santuarequin nere Erria verotu eta quisuarequin lurra bezala ondududanean? Ez, eznaiz  
gueldituco, beicic labradore onen guisa lotuco naiz lanari, predicacioneari aldaba  
azcarquiago emanden quisuaren fruitua vilececo eta conserbatzeco, eta baldin nere oyu  
miñec nior uquitzen eta enfadatzen badute, ceren eldunaicen maiz edo veti becatarien  
irazartzera verri charrequin eta loa pecatariari quentzen diotenequin, adibeza lenic Amos  
etc.

Dominus Deus locutus est: quin non proffetabit?

(Ex. Amos, cap. 3)

Vatimalizaque, iñor, nitaz enfadatuco denic pecatariyari, verri charrac ordinarioqui

ecartzen ttodelacoz adibea lenchago Amos profetaren erran bat. Citzutzen guti maitatzen profetac, Ysraelitar sineste goticubec, ceren maiz profetitzatzen citiozten eriotziac, carcelac eta fin gasstuac, ederqui erratiengatzen pretenditzen zuten dembora eta ocasiyuetan Loquimini nobis placentia: eta Amos profeta ateritzen da profeten alde eta vere burubaren defenditzera eta libratzera onako itzaquin Dominus Deus: ut supra Mintzo vaguiñtez vorondate gastua eta zuben galgarriaren deseyuz, au vay litzaquela gogorra eta miachagarria, viño erran viar vadugu Jaungoicubac diona, ¿nola eztitubegu pronosticatu viar Jaungoicubac erraňen dubena? N. A. M. Ez dudaric izan, zuben salvaciyuaren deseyuz mintzo naizela: asqui penatzen naiz pecatariyari verri charrac ecarri izan viarraz; vino erratian Jangoicubac condenatuco dela, penitencia eguitten ezpadu, nondic nic erran diozequet verceric?

Emen guertatzen da, Acab Erreguiarequin, Miqueas Profetari guertatu zetzayona. Erregua arc, deseyatzen zuben guerlarat ateratia, eta Erregue Josafaten consejuz, ceñec eman cion lagunduko zibelako itza, consultatu edo galduet cion Profetey, guerla aren suceso edo ondoriyu. Onetaraco, juntatucittuben laur egun urbill profeta falsu, au da Aztiyac, eta guciye batian erracioten atarazattequiela eta victoria logratus zubela. Ascende et dabit eam dominus in manu regis. 3 reg. 22. ¿Ezta verze Profetari? erran cion Josefatec; Bay, eranzun cion Acab erreguiac, bada verce ezin icusi dudan Profeta bat, ceren arizaidan beti, beti gauza tristiac anunciatzen. Datorla vada oriyere. Aren esque viyali zuten mandatariyac, erregutzen cion profeta Miqueasi, conforma zadiyela verce profetac erregueri erran cioten arterat edo arequin. Vivit dominus, quia quod cumque dixerit mihi Dominus hoc loquar. Vacar vacarric Jangoicubac erratten didana, orisse vera erranendiot. Erran cion bade Erregueri verce guciyen iduriyaren alrebes. Ec Erregueri, guerlan garay, victorioso aterico cela erran cioten, eta Miqueasec, garaituba izanen cela. Ec Erregueri, viciyarequin, guerlatic itzulico cela aseguratu cioten, Miqueasec verriz, yuaten edo ateritzen bacen, illen zutela. ¿Cer guertatu cen? Sartucen cen Erregua arropac mudaturic, ezagutu etzezaten etsayec, sartu cen diot batallan Siriaco Erreguiaren contra, eta saeta batequin ill zuten. Mortuus est. Yllzen Acab, vegarriyetara ongi erran zion profeta falsuetaz fidatu celacoz, eta Eguiyazco Profeta, Jangoicubaren izenian mintzatzen zetzayonari siñetsi nai izandu etziolacoz, verac naizubena ez izanic ere.

¡Oh Cristabac! Gaur egun biar dut Miqueasen oficiyu. Pecatariya davilla, nondic eguiñen duben vere gustuba, Jangoicubaren nayaren contra, Erregue Acab vezala: veti nailuque ateri veriarequin, eta azquenian gueldittu ongi eta victoriyaqen eriotzeco orduban. Onetaraco galde eguitten eta consejuba escatzen dió: Nori? Ez, eguiya erran diozequen Jangoicubaren Ministrubey, vaicican, adulatzen, engañatzen duten Profeta falsubey. Badaquizube cefí? demoniya Mundua eta vere Araguiyari. Oc diote erratten, vizidadiela, ibilldadiyela nola nay, gogubac escatzen dion conformedaderat, eta azquenian victoriyarequin aterico dela. Oray bada, yarri viardu oquin alderdiyan eta numeruban Jangoicubaren Ministrubac? Desgraciatura predicaduria au eguitten dubena: Ori ez, dio Miqueasec, eztut nic ori erranen baicic Jangoicubac diona Vivit Dominus, etc. Atenciyua N. A. M. Naiduzube nic ere erratia. Miqueasen conformedaderat eguiya villussiya eta den vezala churia churi eta gorriya gorri dela? bay edo ez? Dudaric eztéc... Ea bada, diot equivocatzeco peligruric vague, ocasiyu eta peligrubac matte ttuztenac, pecatubetan, erremediyorik eztu, erorico direla, eta ocasiyo eta peligruric urbullenecubetaric bat direla danzac, vilcuida nasiyac eta yosteta guizaseme eta emacumien artecubac. Ycusi dezagun. Ave María.

¿Nor izandu cen, du S. Efrenec galdetzen, Cristabei accione itsusia hoc eracutsi ote

cionac? Yzan cen S.n Pedro? Yzan cen S.n Juan edo vertze santuren bat? Ez eguiazqui, baicic izandu cen Demoniyua, gure arimien etsaya Verac eran cion Jangoicubaren sierbo bati; leitzen den vezala zazpi doayetaco liburuban. Yaquin nay zuben zuben Religiosuba onec cein cen Jangoicuba gueyenic ofenditzen zubena, pecatuben incentivo edo gay vezala; eta oraciuan cengonian, icusizuben, aricirela Elizan sarcen, danzan-socan guizaseme bat, vertze anitzen artian, eta Elizari varnetic inguru bat eman bezala, eritzen cituztela oñequin, gure Jesus Gurutzeficatubarenac: eman zuten berce inguru bat, eta eritzen cituzten Jesusen Magestadiaren escubac; berce inguru baten ondoban equencen cioten Corona buruhoa, eta oñen pean erabilli zuten: berce inguruban, irri eraguitten zuten Jesusen dolorietaz, ttuba lusstuba arpeguiira cioten botatzen, sayetsa cioten idequitzen, eta aztaz zuten blasfematzan. Zagon Religiosuba ura arrittuya pasatzen eta icusten zubenarequin, eta ezin eramenez amberce injuria eta atrevimentuba, eta yequicera ciyuarian, etorri cetzayon guizaseme danzaren guidariya ura, eta erratten dió: deseyatzen zanubelacoz yaquitia ceñ izan zattequiyen gueyenic Jangoicuba ofenditzen duben gauza, eta aren ofensac provocatzen ttubena, aren ordena eta navez, Ni, bainaiz illumibietaco Principia, dantza eta yosteta profanuben mayestruba eta guidariya, etorri naiz, zuc naizanubenaren eracutsi eta manifestaterat. Yaquinzazu, danzetan direla eguiten, Jesu Cristoren contra, zuc icusi ttuzun gaizquiya eta maldadiya oyec guciyac. Zango edo oñen mugumentu, eta zapata curiosubac aguerciarequin, ttuzte even redentoriaren oñac ofenditzen: zabalduric besubac ibiltziarequin even Salvadoriac, gurutzean idiquiac iduquicittubernarenac ttuzte despreciatzen: vuelta edo itzuliac, eta ematten ttuzten ingurubequin, osticatzen, oñpetzen eta injuriazen dute aren corona: even musica soñubequin, irria eta burlan daude, Jesusen Magestadiac eguiñeco nigarra eta padecittubaco doloria etaz: soñeco adorno eta veztidu lascibuequin, diote ttuba lusstuba, arpeguiira J. Cristori botatzen: alegría vanuarequin, sayetsa idequiten, eta even uquitze ciquiñequin dute blasfematzan. Onen gatic bada, despreciatuba izatten da Jangoicubaren Semia dancetan, eta, ni, baliyatzen naiz dittudan arma guciyetaz cristaben contra dancetako ocasiyuetan.

Ycisten duzube A. M. nola aitorcen duben demoniyuac dantzetaco Autore, mayestruba eta guidariya dela J. C. gure Jaunaren deshonratzeco? Ycusizazube gueyago: Dantza da, dio S. Agustiñec, círculo ingu bat ceñen barna, centroa, erdia da demoniyua. Andic artiquitcen botatzen ttio bere sayetac arimei, eritzen colpatzen baitittu danzariyac, eta danzariey veguira daudeney. An, ttu Demoniyuac, dio Guillermo Lugdunense, amberce ezpata, non emacume danzariyac, soñeco lascivo eta provocalliz yaunciac acudittu direnac. An eritzen du ezpata villussiyarequin, ceren ezten mantu, honestidadiari servi diozequenic: An daude zorroztubac ezpatec, ceren apaintzen diren, majotzen diren plazarat yuateco, eta (y) dantza vera da errotaria, vere ingurubeqn edertasunic ebatsiyena zorrozten dubena, torpecen incentivo, gay eta su gueyagoraco. Emacumia, doncella, hoc, diré, dio S. Antoninoc, araco Ynfervnuco putzutic ateritzen cirela, quean nasiyac, S. Juanec icusicittuben larapot langosta caltegarriya ec. Langostac, saltoca ari direnac, Erregue eta ec gobernadazequien arrozoyic vague: Larrapotiac, even apetito vanuaren ecin aseaz: Langosta caltegarriyac, even provocaciuyequin, galtzen itsusten baitittuzte Elizaco fruituben, au da, proposittu santuben edertasuna. Emacumia oc, diré, dio S. Basilioc, aizia even soñu lasaya, eta lurra even dantza ciquinequin cutsaten corropitzen dutenac. ¿Au ezta eregitia gasstaqueriya eta corrupcionia? Veguira oray, ereñatic vilyuco ttuzten ondoriyuac. Nola pisatzen eta ponderatzen zuben nere S. Francisco Salescubac! Dantza, vilcuida nasi, eta verce gabazco yosteta profanubec dacarzquite erribatian ordinarioz izatten diren pecatubac: aserreac, invidiyac, burlac, eta amodio torpe eta eroac. Cer seguidaitque, dio Petraracac, escu lasay, vegui libre eta honestidade eta recatoric vague

dabilzan oñ batzubetatic? Egercituba diré, Jangoicubaren veldurtasuna eta lotsa santuba destruitzen urratzen dutena: Acullubac dirá, araguiaren verotasunac eta pasioniac ciricatzen ttuztenac. Hi sunt libidinum stimuli; eta onequi lassatzen diré, idequitcen gastaqueria eta loiqueriyaraco atiac. Haec laxamenta licentiae. ¿Norc eztu icusten, dio S. Ambrosioc, even salto eta mugumentu guciyequin mutil guizasemien arimetan eguitten dituzten calteac? Cembat pensamentu gasstubac! Cembat accione itsusiyac! Cembat pretensione ciquiñac!. Dendaric paratzen duzube ondoriyuba otaz?

Errambeza Ysraelgo Pueblubac nondic seguitu cen Cecenaren, Bezerruaren, idolatria añ Jangoicubaren desagrado eta gaitzesiya, eta ogueita iru milla ysraelitarra equin eriotzia ec. Nondic even danza profanubetatic baicic? Vedit vitulum et choros. Arimac diré emen iltzen pecatubengatic, eta maiz asqui gorputzac ere naigabe disgustubengatic. Errambeza Herodesec cergicatic esquein eta ofrecitzen duben vere Erreinu guciyaren erdia, eta aguintzen moztdiozeta lepua S. Jn Bautistari. ¿Cergicatic, dio S. Mateoc, Herodiasen alabaren danza provocativuaz baicic? Picatzen diote emen lepua Graciya divinuari (ori erran naibaitu Juanec) eta errenunciatzen du, ez erdia baicic Ceruco Erreynu gucia, atseguiun, gusto vano batengatic. Gueyago: cembat vider aldiz, danzan aridirenac, galtzen diote erre(s)petuba ec corregitzen ttuzten Sacerdotiey? Ala guertatucen Eguberri arrats batian, Sajoniac Erreynuban, Colbeche deitzen den errian, meza gab erdicoaren ematen aricen, Roberto deitzen cen Sacerdotiarequin. Ecin errancezaquiem meza deseyatzen zuben devociyua eta atenciyuarequin, urbillean danza errepican ariciren batzuben gatic. Viyalicion avisubat issiltziaz eta guelditziaz favore eguitteco, viño etzuten casoric eguin naizandu. Sacerdotiac eguitten dio Jangoicubari otoiota yendia equin escarmenturaco, arren iduquizetzala danzan gueldittuvague urte bat. Gauza arraru! Urte bat ososua, yan edan vague, eta loric eguin vague egon ciren danzan gueldittu gabe, eguna eta gabaz, y guero ilciren gueyenac. Cembatetan ezchuzte burlatzen Eliza eta Elizacubac? Ala eguin zuten Flandesen Mastrichco villan, zubibaten ganian berregun bat Guizacume eta emacume danzan ariciren batian. Pasatzen cen Sacerdote bat Gure Jaun Sacramentatubarequin Carrica batian, equin vista eta ainciñetic, viño etziren dantzatic gueldittu baicic seguitu zuten evena artan. Laster izancen equin castigua. Zubia eguin cen vi pusca, erori ciren gueyenac urera, eta itto ciren. Ycisten duzube seguitzen eta eldudena danzatic?

Eta ¿cér erranen dugu, orraco berce yosteta eta zubec deitzen ttuzuben libertacione, demoniyuac, ez bacarric erri andiyetan baicic oraiñ ttipietan introducittu edo sartu ttuben orietaz? Badaquizube ceñetaz naicen mintzo. Orraco diversio lotsa santuba galduerazten ttuzten orietaz. Orraco yostetaz ceñetan du doncellitac icasten (dio Petrarcac) obiago izanen lizaquiyena iracasten ezpalu; icasten baitu, aunitztan, honra, estimaciyua eta castidadia galzeco gaya diren gauzac.

Orraco elcarrequin yuertia orietaz, guizasemiac eta doncellaq besoz beso, ceñen artian baiuaz, van, vi Demonio lujuriaren suba aizatzen eta ernatzentz; Jangoicubaren siervobatec icusi zuben vezala. Orraco vilcuida nasiyac ceñetan uste dute cillegi zazquiotela besarca musubac eta berce zubec daquizquizubenac. ¿Cer da au? Deittu biarttuztela yocubac, cristabec, ciquinqueria eta loiqueriya verceric eztiren Demoniyuaren yosteta itsusiyac hoc? Yostetac, torpezaren escola publicua direna eq?

Oh cer carguba eta icagarrico Juicio zozrotza esperozaigun, Sacerdotiac ezpaldin vadugu eguiñal gucian peste izurri, gastuba onen contra clamatzen eta oyuba eguiten!!! Veguira nolaco carguba eguitten zayon Apocalpsiyan Pergamoco Obispua. Habeo adversus ta

paca: quia bages illic tenentes doctrinam Balaam: Apoc. 2. Ezagutzen dut zure Fedea eta virtutia, viño contu emazu Balanen doctriña seguitzen dutenetaz. Cer doctrinaz? Araco Balanec, Balaac erregueari Ysraelitarrac pecatubetarat eroriarazteco eracutsi zionaz. Veldurra cion Erregua onec, Jangoicubaren aldetic añ asistittubac eta favorecittubac zeunden Ysraelitarrey, eta Balaanec eman cion consejuba Erreguiari guerla egun ziozela emaztequiequin, even edertasuna danza eta muguimendubequinbecaturatuco cittutzenequin: eta eguiyazqui ala guertatuzen, bada idolatrian erori ciren. Au premititzen du Pergamoco Obispubac? Eztu bada Salbatuco bere virtute propiyuac, aña berze pecatuben ondoriyuac vere gañ dauzquiyelaric. Hay cer carguba gurea! cer carguba Sacerdotiena!

Ycus bezate ere Familiaco Buratso, even alaba (eta emaztiac si tambien bailan) danzara, yostetara yuateco, ez bacarric licencia ematten baicic, orañic componen adornatzen ttuztenac. ¡O Buratso cruelac! Ura yuntatzen duzube loyarequin? Emazube, formatu den loyaz, contuba, eta y loya orretan erortzen diren guciyetaz! Cer da apaintza alava, guerra gueyaco eguitteco, egurrari, oliuya votatzia vaicic? Cer orrembercetiñequan ancizarete, dio S. Ambrosioq, zuben alabaren estimaciyo honra eta arimaz? Qué eranzunen duzube Juicioan? Erranen duzube, ezconzac direla orrequin ajustaten eta componen? Oh eta cembatetan diren facilitatzen pretensione eta accione torpe asco, esconzaco esperanzarequin!!! Errambeza verzala Amon principiac, vere Arreba Tamarren amodioz erittucenian. Deseyatzen zuben viziquia principia onec vere arreba Tamar ezagutu eta gozatu seigarrenecuban; otoizten eta eregutzen zuben aren deseyu ciquinetara amor emunciozela, itz batian consentizezala... Ez Anaya, erratten dio arreba Tamarrec, becatu izigarriya izanen litzaque ori; ez anaya. Goyen goyenez egun dezaquezunaz da escatu eta galdezu emaztetzat Zure eta nere aita Davidi. Loquere ad Regem, et non negabit me tibi. Orobak izanducen ezcontzeco itza au aditzia non bereala pasatu cen obretara, eta indarrez gozatu zuben Tamarren nayaren contra naiz vere atrevimentuba au pagatubazuben guero Amon principiac vere viciarequin. ¡Oh cemba ciquinqueria eguitten diren ezcontzeco esperanzarequin! Eman vezate Buratsobaq guciyetaz, eta even ondoriyueta contuba.

Viño concedidezagun, eztirela burlatubaq guelditzen, francotan guertatzen den vezala: ¿Cer escontzac izanditzezte orraco pecatuba vittartian izanzutena oriyec? ¿Cenbat escontza aña desverdiña aña desvaratatabac etziren formatu danza eta yosteta oriyetatic Buratsoen naya gustuba eta vorondatiaren contracuac, guelditturic Buratsuba oc afluxitubac eta pesalumbratubac, even ababaz izaneco descuidubaren castiguraco?

Ycusi dezagun esura. Sagradan dacarren ejempluba au. Casatu eta acabatu urran cittuzten Venjamintarrac Ysraelgo verce Tribucoe, eta juramentu egun zuten, arren, etziozta eman viar even alabac emazteteco eriotzetic escapatu ciren guizoney. Seietan egun, viciyarequin libratu ciren etatic, lauregunec villatucittuzten andre gayac, eta vertze verregun guizona ec escatu cittiozten doncellac emazteteco, Siloco ciudadeco habitantiey, viño eztiozcaten emanaizandu; cela eguiña zuducaten alabac ez uzteco juramentubaz, edo verce gauzaz, eta ona nola valiyatu ciren Venjamintar guizona ec even zarragocuben consejuz. Yarri ciren gordetubac ardance eta mastibatian, Siloco doncellac danzarat urtioro yuaten ciren paragebaten onduan, eta yosta eta descuidatubagubac ariziremian yequi ciren gordetubac zauden mastepetic eta ebatsicittuzten berregun doncella, bacochac verea eta guero ezcondu ciren. Jud. 21. 23 Juxta numerum suum rapuerunt sibi de his quae ducebant choros uxores singulas. Ez otezuten reparatu guizona ec egun zuten atrevimentubaren ondoriyuuey? Bay guartu ciren. Bada cer dute erranen Buratsoec equin alabac ebastiak icusi eta? Cer eztute eguiñen eta sufrittuco pesalumbriyarequin? Errambezate eta egun bezate nai duten guciya, diote Benjamintarrec, ceren eurec izanen

dute even doloria eta penaren culpa. Certan dago Buratsoequin falta? Escatu cittioztenian even alabac emazteteco, ez ematia artan? Viño ez: ec zuten yuramentubaz gañerat, zeunden venturaz obligatubac borchan even alabac ematerat? Adizazuben Josefoc cer dion: Buratsuben culpa egonducen, alabac ez ematiarequin, danzarat yuatera uztia artan; eta onengatic, esconcen badire Buratsoen naya eta vorondate guciyaren contra, eurec dute ondoriyu oquin guciyan culpa, bada utzi cittuzten ocasiyo eta peligrurat yuatera. Ypsos in culpa esse, quia filias negligenter custodierint. ¡Oh Buratsoac, eta ceñ cargu añ terriblia espera zaizuben! Yzanendiré cargu, zuben alabac eguiñen ttuzten becatuac; zuben alabac torpeza eta gasstaqueriyeterat pretendittuco dittuztenenac, eta culpen eta dañu fiñerañocuban seguittuco diren consecuencia edo ondoriyuenac, zuben culpaz, zubec zaratela medio usariyo gasto corruptionian ez casatu izandubaz, ez utzi izandubaz ez debecatu izandubaz... Oh nere Jangoico ona! amberce sufritzen duzuna!, ¿Noiz artiño aguantatuko duzu Buratso lazo eta descuidatuba oquin acholavaguetasuna eta Fede escasa? ¿Cer onela falta diozequete, araco escondu cirenian, humiac, izatten bacittuzten, Ceruraro azico cittuztela eman cizuten itzari?

Etzatteztela Buratsoac engañatu... Emana dago sentenciya zuben contra. Juez justuba da Jangoicuba eta pagatuco ttuzube, zuben culpaz, zubec alaban danzetan, yosteta peligrosubetan eta vilcuida nasiyetan eguitten eta verciey eguineraazten ttuzten pecatubac. Erremediyua bada zubec onelaco estutasunean zeben burubac ez icusteco eta Juicio andiyan garbi aterizeco, eracusciozube zuben alabey erretirua, ceren dancetan diren arima galzeco peligrubac millaca, ceren danzaz gañera diren verce anitz yostatzeco modu obiagocubac eta inocentiagocubac. Au eguinazazube, au consejazazube, au guciyez esracuszazube, eta onequin Jangoicuba izanen da zuben aldetic honratuba. Lurrian guero eternidade batian gozazeco Ceruban, guciyeri deseyatzen dizubedan vezala. Amen.

## II

### Humildad

Omnis qui se exaltat humiliabitur, et qui se humiliat exaltabitur. Luc. c. 14

Ezdaquit caustuco oteden Evangelioan bertce virtute bat maizago encargatcen zaicuna humildadea baño. Erran daiteque casic, guri humildadea eracustera bacarric etorri izan cela Mundura Jaungoicoaren Semea, ongi yaquinic ainguiru becatarien eta gure lenvicico guratsoen soberbiatic sortuac direla Munduaren lenetic acaballaraño gaitz guciac. Au dela medio dudaric gabe, gure Salvatzaleac, eldu baitcen Mundura becatuac eguinicaco calteac erremediatcera, eman nai izan zacun ejemplu ain aindia bere humildadeaz.

Eguiazqui examinatcen badira gure Salvatzalearen misterioac, eguiteac eta vici modu osoa, ezda nion ere caustuco anditasunic: bere escuan zaukan bere Amataco destinatua zaucana, Munduan lenvicico Erreguiña izatea baño disponitu zuen izan zadiela, garbia eta Saindua bai, ecin gueyago, baño pobrea dembora berean, eta bere clase apalarengatic munduan gutizaguturic vici cena: Aciendendaco destinatua zagon paragea autatu zuen bere sor lecutzat, eta gambela siascataco; Zurguin pobre bat autatu zuen uatz Aitataco, ceñen cerbitzuan vici izan cen oguei eta amar urtez: igues eguiten zuen yendeenganic honratu nai zuten demboran; eta azquenic autatu zuen eriotce gucietañ deshonragarriena; Cein baitcen dembora artan gurutceco eriotcea. Orañic orai ere pasioneco Misterio guciac pasatu ondoan, Ceruan gloriaz beteric aurquitcen den demboran, gure vistara modu ecin gueyago humillean presentatcen, da, edo gurutcean itcez yosia, edo Aldareco Sacramento Sainduan

bere anditasun gucia hostia ttipi baten negurrira biurturic.

Obraz eta egemploarequin bezala, itcez ere etzaicu issiltcen gure Salbatzalea humillac izan gaitecila aguinctetic Sn Mateoren Evangelioan erraten dacu: Discite á me quia mitis sum et humilis corde. Icasazue niganic ceñen humilla naicen. Salomon guizon yaquinsun aren medioz erraten digu: Cembatenez doai eta prenda gueyago autesten diozun cere buruari orduan eta humillago izan zaiteci: Quamto magnus es, humilia te ipsum. Eta gaurco Evangelioan gu humildadera gueyago muguitu naicic virtute untara exortatu ondoan parabola batequin erraten dacu azquenean, humillac izanen direla goratuac eta honratuac, eta soberbioac eta vanidadeari lecu ematen diotenac despreciatuac eta beitituac. Omnis qui se exaltat etc.

Saindutasunaren cimendua deitcen dio San Ciprianoc humildadeari. Cristauen artean lenvicicoc castu bearden virtutea eta barrena, dio San Geronimoc, dela humildadea. Eta San Bernardoc erraten du humildadeac goardatcen eta zaintcen dituela bertce virtuteac. Humildadearen estalpean bai daude seguroenic bertce virtuteac: presuna humillac presente iduquitcen ditu bere faltac eta defectoac, eta guizonaren misericordia eta deuseza, eta ez diote hirriaric ematen baicic urricalmendua bertceen faltac eta disimulatcen ditu urricalduric. Humillac zagutcen du soil diferencia guti dugula guizon guciec elcarren artean: iturri beretic eta miseria berequin sortuac garela gucio; desgracia beretan erortceco arrasscuan gaudela eta acaballa bera izan bear dugula. Eta humildadeac zaumendura au ematen dacun demboran, goardatcen gaitu progimo lagunaren caridadean eta libratcen gaitu niori ere desprecio eta burla eguitetic.

Humildadeac decarra baquea cergatic presuna humillac badaqui ceditcen eta ez ceditu nayac pizten ditu discordiac eta aserdurac: eta finean humillac ontzat artcen ditu eguiten zaizquierdo correccioneac, advertitcen zaizquierdo utsac, eta ematen zaizquierdo conselluac eta bere buruaz ez bait da sobera fidatcen, baitaqui adisquide eta Superioreen conselluac enzuten gusto, amorio eta modu andiarequin ematen da consellua, ongi enzuna izanen delako seguridadea den demboran, oquen guciengatic nequez alderatcen da humilla zucen pidetic, eta uts edo macur bat eguinic ere lasterrago erremediatcen da bere falta.

Baño ventajaoc guciac humildadeari darraizcon bezala bertce gaitzac yarraiquitcen zaizquierdo soberbiari. ¿Noiz zagutcen eta aitortcen du soberbio batec bere utsa eta macurra? ¿Nor atrevitcen da alacoari correccione bat eguitera, consellu bat ematera edo falta bat advertitcera? ¿Baño cer da soberbia? Soberbia da batec bere burua mereci duen baño gueyagotan estimatea: Soberbia da yendeec honra dezatelaco deseyu min bat izatea: humildadeac eracusten dacu gueren faltei beguiratcera, eta eguiazqui humilla denac, bere falta eta defectoen culpa bere buruari botatzen dio, eta bere baitan ventajaric causten badu zagutcen eta aitortcen du Yaungoicoari zor diola. Baño soberbia den lecuan dio Spiritu Sainduac, ezdela beñere falta quimera eta aserdura eta ondotik odioa. Soberbiari darrayo invidia ere, ceren bere buruaz, bere gaucetaz eta doai eta ventajetaz vanidadea artzen duenac ez dieceque beguiratu begui onarequin bertceen on eta ventajei: bere burua nailuque icusi bertce gucien gañetic, eta au dela causa tirria eta pena ematen diote bertceren onac.

Soberbia paratcen du Sto. Tomas Doctoreac vicio capitaletan lenvicicoa: badira vicio batzuec capitalac deitcen direnac, cergatic diren bertce vicio batzuen iturriac eta Amak bezala, eta alacoa da soberbia. Gueyago erraten du orañic Scritura Sainduac. Vicio gucien iturria eta zaña dela soberbia. Initum omnis peccati superbia.

Eta eguiazqui, ¿Norc daqui cembañat becatu causitcen duten Munduan soberbiac, vanidadeac eta presuncioneac? ¿Cembañat guerla ezdu pizten manatu nayac eta cembañat gaizqui ez du causitcen guerla batec? ¿Cembañat odio eta envidia ez du sortcen bere burua bertceac baño goitiago icusi nai izatetic? Anditasunean bertceei yarrai qui nayac edo bertceac pasatu nayac, cembañat trampa ezdecarra contutzaletan, cembañat injusticia eta ebasco gobernazaletan, cembañat zor eta guibelatcepenecheetan eta familietañ?

Vanidadiac eta soberbiac equentcen dehe merito gucia obra onei. Yaungoicoaren aitcineraco ere, bada deusere ezdute valio animaren oneraco vanidadez eta yendeen erranagatic eguiten diren baru limosna otoitz eta gañeraco obra onac. Eta oranic Munduonen estimuan ere prendaric ederrenac eta doaic baliosoenac galtcen dute beren lustrea ec berequin dituenari vanidadea autetsi ezgueroztic. ¿Baño cembañat ezdu edertcen bere burua yaquinsun humillac, vanidaderic gabeco ederrac eta soberbiari lecuric ematen ezdion aberatsac eta nobleac! ¡Milla egemplu causten dira Escritua Sainduan claroqui aditcera ematen dutenac cembañat maitatcen duen Jaungoicoac humildadea baño cein gauza gaitcesia duen dembora berañ soberbia. Soberbia ceraman zuen Cerutic infernuco zolaraño Lucifer bere lagunequin eta Aita Eternoaren Semearen humildadeac eramatene ditu guizonac lurretic Cerura. Soberbiac galdu cion Adani paradisuan; eta humildadeac erdietsi cion gure Salvatzalearequin gurutcificatu zuten ladron onari betico paradisua: Evaren soberbiac galdu quintuen eta Mariaren humildadeac erremediatu: Vere soberbiaren castigutan animale biurturic guelditu izan cen bezala Nabucodonosor, alasse ere bere humildadearen pagutan José legue zagarreco Patriarca ura gartcelatic lecura Egipto gucico miserregue eguna izan cen. Eta azquenik ¿cerc ecarri izan cion David erreguiari eta aren erreinuari iru egunetako peste labur baño arrasagarri ura? Vanidadez yaquin nai izan zuen Davidec bere erresuman zaucan yendeen numeroa; baño Jaungoicoac instante berañ gaztigatu cion Gad Profetaren medioz anitz ofenditu zuela vanidadeac, eta unen castigutan, auta cezala edo zazpi urtetako gosetea, edo iru illabetetako guerla edo iru egunetako pestaña: Beressi zuen pestaña cergatic pestaña ezdecarran Jaungoicoa ofenditceco ocasioric goseteac eta guerlac bezala, eta ceren pestañarequin arraissu bera duten andiec nola ttipieci nola erregueec: bada iru egun iraun zuen pestaña eraman cituen aren erresumati, 70 mila presuna. Escarmentu oc guciac ematen dute aditcera cembañat gaitcesten duen Jaungoicoac soberbia, eta arrozoin andiarequin cergatic soberbioac eta vanidadetsuac naiduten berentzat Yaungoicoari zor zaizquion adoracionea eta errespetua. Unengatic dauca emaníq sentencia: soberbia izanen dela beititia eta etc. Qui se exaltat etc.

Baño bere burua ongi examinatcen duenac, ¿humildadez ala soberbiaz betetceco motivo gueyago caustuko ote du bere baitan guizonic abentajatuenac?

¿Norenganic errecibituac ote ditu vanidadez eta anditasunez betetceco motivo ematen dioten onac? ¿Yzan du parteric ederrac bere edertasunean, ala du graciaz errecibitua? Guizonic abillenari ¿cer gueldituco litzakoioque demborari, eracustunei eta Yaungoicoac eman cion talento naturalari zor zayona eman ezgueroztic; Soberbia beti dago begira bere onei eta ventajei eta ez du pensatcen equen zorrak niori ere badiola, baicic dena berez erdiestua duela. ¡Cer miseria eta itsutasuna au bera! Deus ere ez bereic; dena gucia bertceen ganic errecibitua eta siñetsi bear ¡dena bere abilecias erdietsi duela! ¿Cer on presentatuko du guizonac Yaungoicoaren ganic errecibitua ez duen edo parte gueyena bedere ari zor ezdionic? Baño ¡cer diot parte gueyena! falta eta defectoetan ezbada, ¿badu venturaz guizonac parteric deusetan ere? ¡Edo beneizpen uca dezake onic ttipiena ere zor diola Yaungoicoari, egunoroco vicia eta instanteroco ats artcearen ganic errecibitzen dituen

demboran? ¡Eta cer eguiñenluque vicia gabe? ¡Cer animaco facultaderic gabe? ¡Cer corputceco mienbroric gabe? ¡Eta oc guciac norenganic eldu ote zaizquio ezpada Yangoicoaren ganic? Bere burua ongi examinatcen duenac milla miseria caustuco ditu bere baitan yende-en vistara aguertcen balire anitz solas emateco videa paratuco luquetenac. Viotz andi eta generoso eta entendimentu argui batec casu guti eguiten du bere ventaja eta doayetaz: gueyago beguiratcen dehe vere falta eta escasiera oc erremediatceco, eta au da eguiazqui humildadea erdiesteco videa. ¡Eta cein gauza maitagarria den humildadea!

Humildadeac edequitcen ditu Ceruco ateac eta erdiesten Aita Eternoaren bendicioneac: humildadeari darrayo viotceco baquea: presuna humilla izain da urricaltia progimo lagunaren faltac disimulatececo, cergatic ongi consideratcen duen guizonaren miseria eta deuseza, eta baitaqui gure baitan causten den onic ttipiena Yaungoicoari zar zayola. Humillac ere beguiratcen dehe bai bere onei eta ventajei baño ez vanidadez betetceco baicic on gucien causitzale, Yaungoico gauza gucien eguileari esquerrac emateco. Etzayo ez autetsico humill eguiazcoari niortaz ere burla eguin nayic.

Baño on oc guciac erdiesteco ezda asqui humildadearen itchura: gauza erreza da yendeen vistan humilla iduritcea, baño guciz necosoa viotcez eguiazqui humilla izatea: Asco aldiz paratcen da empeñu andi bat Munduaren veguietan humil delaco fama erdiesteco, eta guertatcen da humildadearen estalpean soberbiaric finena gorderic egotea: ez da olaco humildade falsoa aditu duzuen bezalaco ventajac eta onac erdiesten dituenac, baicic viotcez eta ichuraz izan bear dugu humillac Munduan: cembatenez ttipiago eguiten garen gueren estimuan lurrean, vici gareneño orduan eta gueyago izanen gara Yaunaren beguietan: Yduqui detzagun bada presente gueren faltac eta izanen gara humillac guerentzat eta urricaltiac bertceren faltac disimulatececo: humildadeac erdietsico dazcu Munduan Yaungoicoa cerbitzatceco bear ditugun graciac, eta eriotcean edequico dazcu Ceruco ateac. Amen.

### III

#### Meditación: Novíssimos

Qui non renunciat omnibus quae possidet, non potest, etc.

Causten cen aldin batez zure Salvatzalea Mendi gain batean zauzclaric bere inguruan bere discipuloac; eta icusi zuen yende tropa andi bat eldu cela aren agoco doctrina saindua enzuteco deseyuarequin. Urricalduric Jesus maitagarria eta mendi gañeraño igateco nequea escusatu naicic, atera citzayen bidez errecibitcen cituelaric cariño andienarequin, eta eman cehen animen sustentu espirituala esplicatcen cehalaric Ceruraco doctrina.

Pensaturic equen corputzac ere sustengu beartuac caustuco cirela erran cion bere discipuloetaric Felipe deitcen cen batí ¿Non villatuco ditugu oguiac ainbertce yende-entzat? Guizonac bacarric andreac eta aurracontatu gabe allegatcen ciren bortz milletaraño. Felipec erresonditu cion: Jauna: berregun denariren edo peceten oguia ecarriric ere, apenaas allegatuco zaye bocadu bana. Dembora berean erran cion Andres deitcen cen bertce discipulo batec: Yauna, bada emen mutil bat bortz ogui eta bi arrain dituenac, ¿baño cer ari gara unequin? Orduan manatu zuen Salvatzaleac yar zadiela yende tropa ura gucia eta bedeicio botaric eta milagrosoqui berraturic ogui ec ase zuen yende gucia eta orañic soberante equin ere bete ciren amabi zare.

Dudaric gabe arritcecoa idurituco zaitzue milagro au: nic ez dut ucatuco ez dela ala; baño bai erranen datzuet urasse bezain milagro andia eguiten duela Yaungoicoac egunero nai badugu guc consideratu. Ez bortz milla eta bortz egun milla, baicic millonac millaca, eta oranic animaleac, egaztinac eta arrañac egzaitu egunero mantenatzen Yaungoicoac? ¿Baño nola eguiten du au? Milagrosoqui ¿bada cer milagro andiagoric aci-ari fruitua urteero ecarraztea baño? Ea Munduko guizon abil guciec eguienen dituzten lurrac eta aciac eguiten dituzten lanac?

Baño ez da nere asmoa gaur egunoro guertatzen den milagro unen gañan minzatcea, baicic gure Salbatzaleac esplicatu cehen doctrinaren medioz eman cehen alimentu espirituetic ocasioa arturic minzatu nai nuque animari gauza onetan pensatzen egotetic eldu zayon probechu edo sustengoaz. Presta zazue instante batez atencionea.

Eta eguiazqui: Niondic ere etzayo animari etortzen ainbertce indar eta sendotasun nola gauza onetan pensatzen egotetic, eta uni deitzen zayo medi tacionea. Agozco otoitz litzaque valiosoena gure mingaña Yaunaren laudatzen ari den denboran viotza ere artan balego pensatzen; Yaungoicoaren presenciac escatzen dituen devocione humildade eta errespetuarequin; baño aguerian dago milla aldiz gure otoitz ec Yaungoicoari placer baño disgusto gueyago eman bear diotela eta errateco moduan gure mingañac erraten duenari casu eguiteco gogoric ere ezduela izaten, gure pensamentua non dabilen icusi ta, eta ez dugula gueren burua premiatzen atencionea viltcera.

Au dela medio; comuzqui probechu gueyago ateratzen du animac ordu laurden batez gure religione sainduaren egui-eten pensatzen, au da meditatzen egotetic, ecen anitz orduz errezzatzen egotetic. Eta ¿cer bear guinuque meditatu edo pensatu gueyenic eta maizenic? Gure Salvatzale adoragarriaren pasione Sainduac ocupatu bear luque gueyenic Cristabaren pensamentua: Una Nere Cristabac, una leitzen ez daquitenec ere lei dezaqueten liburua: unec ematen du aditcera cer den becatua eta cembat aborrecitzen duen Aita Eternoac, bada ain icigarriqui castigatu zuen bere Semea, bertce-en becatuengatic. Redentore maitagarri unen vicitzaren eta particularqui pasione Sainduaren historioa da escolaric oberena virtuteac icasteco: emenche bai icas guinezaquela ematen diren leccione admiragarriequin humillac izaten; burlac eta berac sufritzen; ofensac barcatzen lagun progimoa maitatzen eta Yaungoicoa gauza gucien gañetic cervitzatzen. Edocein virtuteen bearretan causten denac acudi dezala botica Saindu untara, eta emen caustuko ditu ejemplo arrigarriac eta viotza mugitceco indar andia dutenac.

Baño bego asunto au ere bertce aldia bateco bada ezda au ere nic gaurcotzat autatu duten asuntoa. Badire Cristau-arentzat bertce oroitzapen batzuec valiosac tentacioneac garaitceco; becatua utci-azteco, eta Munduko onetaraco guticia itzalteco indar andia dutenac; dira gure azquen fiñaren oroitzapenac, erraten duelaric Espiritu Sainduac berac: Oroi zaite ceren azquen fiñaz edo suerteaz; eta etzara becatuan erorico: Memorare novissima tua, et in aeternum non peccabis. Oroitzapen oc maiz gogora ecartcera bear zaituztet baga gaur exortatu.

Sines diazadazue Nere Cristabac: Meza batzuec enzun eta arrosario batzuec errezzatcearequin etzatela deus ere ari: eguzue prueba; guti goztatzen da. Pasa citzue rato cembait eriotcean, Yaungoicoaren tribunalean egun bear zaizcun yuzcamenean, seculako penetan eta seculako zorionean meditatzen: ezzuzue untaco gasturic egun bear: dembora da gauzaric merque-ena, eta icusico duzue nolaco mudanza causituco duzuen zuen

viotcean, eta pensamentu oc berac, cer propositu firmeac eguinacico dazquitzen becatuan ez erortceco eta cerenganic tentacioneac erresqui aizcatceco. Ez da berdin erremedioric: ez dugu escaporic: gucioc arrapatu bear gaitu azquen acaballaco pasage tristeac.

Gure azquen fiñaren oroitzapenac animan causitzen duen lembicico ona da; itzaltcea viotcean Munduko onetaraco afizione ta pasione soberatua. Uste dute anitceec Munduko onen guticia unec ezduela calteric eguiten animan: deusec ere gueyago: Ontasunac berratu baicic itsutasun andi batequin dabillanari, nai badu berac aitortu guticia guti ematen diote bertce Munduko on-ec; bada guticia eta deseyu guti ematen duten gauzac empeñu gutirequin billatzen dire eta milagroz baicic erdiesten eta are gutiago erdiesteco necosoac badire: eta ¿gauza erdiesteco errezenetaric eta guti importatzenten duenetaric oteda bada Cerua? Munduko onen atcean pasione andiarequin dabillanaren viotcean beñere azdire falta vanidadea eta envidia; vi vicio soil ondorio tristeac dituztenac baño alaic ere conciencia examinatceco demboran caso guti eguiten zayenac: alacoac ez dute otoitz onic eguiten ecetare ongui confesatzen ceren beti dauzca viotcean eta pensamentuan Munduko gauzac eta particularqui codicia baita becatu gucien zaña eta iturria dion bezala San Pablo Apostoluac.

Alfer da Nere Cristabac: Munduko onen guticiaz beteric dagon viotcean ezdago an lecuric Yangoicoaren amorioarentzat, bada alacoac cuidado guti iduquitzen du anima garbi eta virtutean eta animaco ontasunetan aitcinatceaz: Unengatic erraten du Jesucristoc bere Evangelioan: Ez duenac renunciatzen dituen gauza gucietara, ez daiteque izan nere discipuloa. Nisi quis renunciaberit omnibus quae possidet etc.

Yauna erranen du acaso nor baitec: beraz ezdugu maitatu bear Munduko onac? Ez dut nic erraten ez direla maitatu bear, baña bai ez direla sobera maitatu bear; au da, ezdugula etan gure viotza paratu bear, Ceruco onen caltetan.

¿Eta cer señale emanen da Munduko onetaraco pasione soberatua den ala ez zagutceco? Emanen dazquituet bat baño gueyago. ¿Baduzu cere vicitza pasatceco adina eta alaic ere zabiltza pasione andiarequin gueyagocoen atcean cere burua bertce guciac baño goitiago icusi nairic? ¿Arindu bear lecuan progrimo cembaiten onac iluntzen datzute viotza? ¿Erreparu gutirequin irabaci cerbait eldu zaizulacotz; artzen duzu besta egunetan viageren bat edo bertce ocupacione edo tratu Elizako funcioneac galazten dazquitzenac? ¿Gabaz eta egunaz, ametsetan eta idatzarriric zaude beti cere gaucetan pensatzen? Bada oc guciac dire señaleac animaco gauzac baño gueyago maitatzenten direla Mundukoac.

¿Nai duzu orai Cristaba erremedioa, Munduko onen ganaco amorio soberatu au itzaltceco? Zoaz maiz pensamentuarequin eriotceco ordura: para zazu cere burua trance estu artan: contu egunzu causten zariela goatce batean bertce Mundurako etsiarequin, eta erran diazazu. ¿Cer dira Mundu untan zuc gueyenic maitatzenten dituzun gauzac? Guratsoac, aurrideac, humeac, cere espresa, ontasunac, cere hechea, haciendac, diversioneac? Bada preciso izanen da gauza maite oc guciac beticotzat uztea: eriotceac eremain zaitu cere alderdiaren ondotik: eriotceac ateraco zaitu cere guratso, aurride eta familia maitearen artetic berri ez itzultceco: eriotceac utziacico datzu cere echea berri ez artara itzulceco: ez duzu yaquinen cer escuetan, cembatetan eta nolacoetan ibili bearra izanen den, eta finean eriotceac quenduco dazquitzen ontasunac, haciendac eta gauza guciac. ¿Eta uste duzue separacio unec berdin penatuko duela Munduko gauzac itsutuqui maitatu dituenari eta bere negurrian indituenari? Ez Nere Cristabac ez: baicic permitituco du Yangoicoac sobera maitatu dituenari cruelquiago penatua guerta dadien.

Eta ongi emplegatua dago guizonaren viotza alcabo aimbertce penatu bear duten gaucen maitatcen? ¿Ezluque obequi eguien maitatcea apuro artara laguntza eta consueloa eman diozoqueten gauzac?

Baño ez pensatu Munduan ainbertce maitatu diren gauzac utci bearrac ematen duen penan encerratcen direla eriotcearen samintasun guiac: beguiratcen badu ondocora eriotceco trincean causten denac, orañic gogoracio aren penagarriagoac etorrico zaizco burura. ¿Cer etorrico zayo bada? Etorrico zayo pensamentura ordu gutiren barrenean aren corputza eta anima animale batec azquen atsetan eguiten dituen demostracio tristeac eguin ondoan, Yaungoicoaren Ministroa uyuz dagoquilaric, eta ezpañetara arrimatcen diolaric Santo Cristo baten imagiña adoratceco, dembora berean presente daudenec suspiro cembait botatcen dutela baño gauza oc guiac den gutiena autetsi gabe, apartatuco direla elcarrenganic: gueldituco dela orduan corputza itsustua eta tronco bat bailiz bezala gogortua, uquitcen duten guciec escuac garbitzen dituztela: finean ateraco dutela echetic len baño len botatcen duen usañarengatic cantu triste batzuen erdian, eta ezquila soñuan eta acaso ezquilic gabe eremanen dutela Campo Santora an lu(r)pean sartceco, berriz beñere yendeer vistara ez aguertceco.

¿Arinac zaizquizue pensamentu oc? Bada ez dire orañic eriotceco trincean causten denaren izpiritura etorrico zaizquion triste-enac. Animac izan bear duen suertearen casuz etorrico zaizquionac milla aldiz icigarriagocoac izanen diré. ¿Cer guertatu bear ote zayo bada nere animari? erranen dio bere buruari trance artan causten denac. ¿Cer icusteco otenago ni? Fedeac erraten daut azquen atsarequin batean Yaungoicoaren tribunalean presentatu bearra naicela. ¿Norc guiatuco otenau arat? ¿Non edo cer parageten guertatuko oteda yuzcamen ura? ¡Ah! orainche bai asten dira guertatcen nere baitan bein baño gueyagotan predicarien agotic aditu izan ditudan gauza icigarriac. Yltceac icitcen nau eta eznaiteque espacatu eriotcetic: Yaungoico ystu, Yaungoico zuchen, Yaungoico Saindu baten presencian nere vicitzaz contu ematera presentatu bearrac icaratzentz nau, eta loturic eramanen nau arat Yaun poderosoaren escuac: icerdiac ematen daut eta odola ozten zait pensatceaz ere finic gabeko eternidade icigarri batean, eta edequiac icusten ditut daudela neretzat aren ateac. ¡Ay oc apuroac! ¡ay au estura! ezbaita nere baitan alacoic beñere guertatu!

¿Eguia ote da nere Cristabac trance estu artan icusi bear ditugula gueren buruac? segurqui bayetz. ¿Nola bada ez da gueyago pensatcen? ¿Cer ari gara miserable triste oc pensamentu oc gogotic aizcatearequin tristeac direlacotz?

Espiritu Sainduaren errana da: eriotceaz maiz oroitzentz denari, ongi goanen zayola eriotceco orduan: bene erit in stremis. Eriotcean pensatceac, bai itzalceen du Munduko ontarako pasionea, nondic eldu baita Cerucoac ez billatcea. Ala pensatcen zuen Saladino General famatu Munduaren parte bat garaitu izan zuen arc; ceñec utci zuen atorra utsean eraman cezatela enterratcerak, eta soldadu batec atorra aren egal bat lanza baten puntarequin goratzen zuela uyu eguien cezala erranez. "Una certara viurtu den Saladino famatuaren anditasun gucia." felipe II. Españiako Erregue andi eta piadoso arc, iltceco aitcinean deitu zuen bere semia Erreguea bearra eta estalquia goraturik bere pechoan formatzen asi citzaizcon arrac eracusten citiola erran cion: "Ycusazu semea certan acabatzen diren Munduko anditasunac".

Bada eriotzaren oroitzapena ain gauza valiosa balin bada Munduko onequin ez sobera zoratzeko; juicioaren eta infernuarena ez dira tipiac becatuan erortcetic guardatceko eta

becatuco estaduan causten dena arrasscu artaric ateratcera muguiazteco. Ceren ¿norc esplicatuco du animari lotuco zayon daldaria eta beldurra Jesu Cristo bere Magestade gucion bere aitcinean icusten duelaric?

Bi liburu edequico ditu Juez divino arc: Evangelioa eta concienciaren liburua. Evangelioaren doctrina saindua eracutsi onduan erranen dio: una cer eguinbear cinuen: una cer vici modua eraman bear cinuen: goacen orai icustera cer eguin duzun: leenic examinatuco dira obra onac: baño ¡cembat arrepatuco diren ustelac! Ustelac caustuco diré yendeen ongui erranagatic eguinicaco obra onac: ustelac Munduac icusteagatic eguinicacoac: ustelac devocioneric gabe eguin diren otoitzac: ustelac lausengoa muguituric eguinicaco limosnac: bacarric eta bacarric Yaungoicoari agradateagatic eguin izan direnac artuco ditu ontaco Juez riguroso arc: examina citzue beraz nere Cristaba; examina citzu obra onac; ea cer modutan, nola cer fiña eta miraiquin eguin dituzun: eguin ditezquenac, eguin alez gordean: yendeen vistan eguiten direnei soil errezqui lot daquieque vanidadea eta Munduaren estimacioa erdiesteco deseyua.

Eta ez pensatu dela doctrina au nere iduri edo estutasun bat: Evangelio saindua escuan daucala yuzcatu bear gaitu gure Juez Jesucristoc, eta evangelioan erraten dacu berac: ezdezala yaquin zure ezquerreco escuaz, escuñecoac eguin duen obra ona; eta aurpegquia garbi dezagula barugaren egunean, niorc zagutu ez gaitzan colore-eten baru garela: eta cuidado itz oquin; Jesucristorenac dira eta ez nereac.

Ondotic examinatuco dire becatuac: edo obequiago erranen dut: Yaungoicoac arguitasuna emanic, icusico ditu batec bere concienciaco becatu guiac ac isipilu batean aurpegquia icusten den bezain garbiqui, orai conciencia examinatceracoan gueren soberbiac gordeazten dazcunac; casuric eguin gabe uzten direnac, eta becatutaco artcen ez direnac ala artu bearrac. Anchen bai, an icusico du batec bere concienciaren ezcabia guicia: anchen mingain libre eta lañoac, maldicioa, murmuracioa eta itz lizuñac Jesusen icena baño maizago agotan artcen dituzten ec; aguerico da ea cein ausarqui erraten dioten juez yusto ari ulaco eta alaco guaza ez direla becatu: beldurric ez duten escuan eta menecoei burla eguitea beren escuan daucatela uste dutenac; anchen arrepatuco dute desamparatuen Aita eta pobre eta flacoen defenditzalea, enossent eta ignorante etarañoco guiciei eguinicaco irrietaz contua escatuco duena; ondotic vengantza artceco.

¿Norc esplicatuco du animaren orduco apuroa, icusten duelaric JesuCristo illen eta vicien Jueza Magestade icagarri batez batez betea; escuñeco escuan yusticiaren ezpata eta ezquerrecoan legue saindua dituela? ¿Ainguiru guardiacoa aurpegui damugarri batequin alde batean, eta bertcean Demonioa ortzac irritaturic? eta lau orriataric icara esperoan cer sentencia aditu bear ote duen? ¡Oh jesus, eta ura apuroa!

Sentencia cere favore aditu naico vide duzun Nere Cristaba, valia zaiteci presenteco demboraz penitenciaren medioz egun icagarri artaraco prestatceco: ecar citzu maíz gogora guizonaren azquen finac guero urriquiac ez izateco: cuidado, anitzei guertatu zayela uste gabe au, eta eternidade osoan egoteco daude nigarrez beren uts eguinaz. Gueren escuan daucagu ez alaco desgraciadic guertatcea: valia gaitecin orai confesione on baten medioz Yaungoicoarequin vagueac eguiteco: artu deliberacione firme bat Yaunaren cerbitzuan seguitceco, bada nagusi maitagarri unen cerbitzuan causten da baquea vicitza untan eta guero errebituco gaitu Ceruan. Amen.